
EGIAZTAPENAREN ONDORIOAK

Prozedura honen bidez eskuratutako kompetentzia-atal baten egiaztapenak egiaztapen partzial metagarriaren ondorioak izango ditu, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 8.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, hala badagokio, dagokion **Lanbide Heziketako titulua** edo **profesionaltasun-ziurtagiria** lortzera bideratutako prestakuntza osatzeko helburuarekin.

Administrazio eskudunak aitortuko ditu egiaztatutako kompetentzia-atalak, eta ondorio hauek izango dituzte:

- a) Dagozkion lanbide-moduluak baliozkotzea, indarrean dagoen eta titulu bakoitzean ezartzen den araudiaren arabera.
- b) Profesionaltasun-ziurtagirien kompetentzia-atale lotutako prestakuntza-moduluetatik salbuestea, indarrean dagoen araudiaren arabera, ziurtagiri bakoitzean ezartzen dena.